Según María Dolores, los carnavales comenzaban el jueves gordo. Este día salían los txistularis dando la "kalebuelta" tocando el txistu, y se paraban en las casas de los comerciantes, donde eran obsequiados con alguna propina. Los demás días solía haber sokamuturra, azeri dantza y toros en Txantxilla. El baile se hacía en la plaza y tocaban piezas de carnaval, con música de Sarriegi.

Recuerda María Dolores que la Unión Musical organizó una carroza de negros que iban tomando café y cantando aquello de "...Ay mamá Inés, ay mamá Inés, todos los negros tomamos café...".

Delante de la carroza iban Pepito Ubarretxena, que tenía mucho tipito, vestido de muñeca, jugando con un aro, y Txomin Múgica, "Axala", iba cuidándole vestido de inude.

Los hombres participaban más que las mujeres, y la gente se vestía con lo que tenía en casa. El traje elegante era el de las "colombinas", como las bailarinas de ballet. También salían de payaso, y el que tenía dinero compraba el traje en Donosti. El domingo de carnaval se hacían carrozas, a veces alusivas a las cosas que ocurrían o estaban de moda. La sociedad que más participaba era la Unión Musical, era gente popular. También salían en la comparsa de caldereros y solían cantar muy bien porque en la sociedad tenían también un coro. También solía participar la sociedad Urumea, pero éstos eran más elegantes.

Recuerda asimismo el entierro de la sardina. También lo organizaba la Unión Musical, y recuerda a Perico Egaña dirigiendo el coro. Se realizaba al anochecer y sólo participaban hombres. La sardina era una persona que llevaban encima, y cantaban aquello de "...Si supieran los curas y frailes la paliza que van a llevar, subirían al coro cantando libertad, libertad, libertad."

Según ella, cuando estuvo de alcalde Don Felipe Miner, se gastaba mucho dinero en carnavales. Había muchas cosas, se echaban cohetes, etc.

MARITXU OA (1913)



Maritxuren esanetan, karnabaletan, goizeko 6etan danbolina oso doinu polit bat joz pasatzen zen. Nikolas Portalondokoak, Antso-renatarrak, eta Jose Joaquín Uzkudun "Egoskorrek", hirurek, kale buelta egiten zuten.

Zezenak ere izaten zirela dio Maritxuk. Txantxilan

zezen plaza jartzen zuten, eta jendea erruz etortzen zen, batik bat Donostiatik. Zezen plaza elegante jarrita egoten zen, bere tribuna eta guzti. Hiru zezen klase ateratzen zituzten. Tamaina haundienekoa irutzen zenean, jendeak "hau herriarentzat" oihukatzen zuen. Kapotearekin Jose Manrique eta Jose Luis Miner dotore aritzen ziren.

Bestalde, batzuk mozorrotuta ibiltzen ziren. Jendea nahiko xelebrea zen. Behin, gogoratzen du Maritxuk, "Tolosa" izeneko bat emakumez jantzi zen, eta bere atzetik Jose Luis Ubarretxena haren mailetero bezela zihoan. Garai hartan Madriletik jende asko etortzen zen, eta mailetero asko ibiltzen ziren. Gure bikotea dotore ibili zen kalean barrena turistarena egiten, batera eta bestera bere mailetarekin. Beste batean, Txomin Mujika "Axala" inude arroparekin jantzita ibili zen. Zintzarriak zituen soka batekin zebilen jolasten, eta ikusten zituen umeak saltoka jartzen zituen.

Azeri dantza ere ederra izaten zen. Orduan, gogoan du Maritxuk, Pepe Adarraga ateratzen zen sokan, eta gure kalean, Andre kalean, bere andregaia bizi zen. Haren etxeko balkoia jendez beteta egoten zen beti. Handik pasatzerakoan, Pepek soka gora igotzen zuen, eta neskak hura ikustean garrasika hasten ziren.

Urte batean, baserritarrez jantzita zihoala, euskal sukaldea irudikatzen zuen karroza batean parte hartu zuela oroitzen da Maritxu.

"Bailea", eguraldi ona bazen, Tilosetan egiten zen, eta txarra zenean arkupean. Bandarekin txandaka txistulariak jotzen zuten. Hauek plazako sarreran agertzen zirenean, denak haien atzetik kalejiran Triku-triku doinuarekin plazaraino joaten ziren. Azkeneko saioa egin ondoren, denak etxera. Orduan jendea 11.30etarako erretiratzen zen. Orain, berriz, jendea labezomorroak bezela ibiltzen dela dio Maritxuk.

"Sardinaren entierroan" gizon andanak parte hartzen zuen. Apaiz eta fraileekin sartzen zirela gogoratzen du Maritxuk.

Bere etxean adituta, mende hasieran, Alberto Bireben alkatea zela, karnabaletan bat-batean hil, eta asteartean entierro garaian han agertu zen koadrila bat txerriz jantzita. Hura burla handizat hartu zen, eta istiluak ere izan ziren.

Baserritarrak inauterietan Karroza 1931.



Hernaniar askorentzat ezezagun gertatzen bada ere, Ereñotzu aldean 60. hamarkada arte, inauteriak ospatu izan zituzten. Hernanin, azken gerra zibila arte, herri barruko Inauteri festak arrakasta handiz ospatzen ziren bitartean, jai hauen beste adierazpena Urumea bailaran egiten ziren inauterietan aurki genezakeen. Inguru honetan, aspaldiko ohitura omen zen egun hauetan baserriz baserri eskean edo puska biltzen aritzea. Gazte koadrilak, esku soinua lagun zutela, kantuan eta dantzari ibiltzen ziren etxez-etxe. Ohitura hau Hernani eta Euskal Herriko inauterien jatorrian datza, eta urte askotan jai hauen osagai garrantzitsua izan zen.

INAUTERIAK URUMEA BAILARAN

X. Iriarte

Gerra zibilaren ostean, toki askotan festa hauek debekatu egin ziren. Zenbait herritan, aldiz, izen edo planteamendu aldaketa baten bitartez, jai hauek berreskuratzea lortu zuten. Hernaniren kasuan, karnabalak egitea galerazita egon arren, Urumea bailaran ohitura honekin jarraitzea lortu zuten. Inguru honetan ospatzen zen festari "Mozorro eguna" deitzen zioten, eta inauterietako igandean ospatu ohi zen.

Azken garai honetako protagonista bat Saturnino Agirre Peruarena (1933-2002) izan zen. Orain dela gutxi hil zen Saturri esker, festa honen berri eza-gutzeko aukera izan nuen. Bera izan zen azken urteetan soinu-jole lanetan aritu zena, eta ibilera honek

festaren bilakaera hurbiletik jarraitzeko aukera eman zion.

Saturrrek bere familian soinu-jole asko ezagutu zituen. Ereñotzuko Igerola baserrian jaio zen, eta bere aitona Jose Antonio, aita Nikolas eta Agustin osaba soinu-joleak izan ziren. Saturrek txikitatik musikarako afizioa era-

kutsi zuen, eta hamabi urterekin atera zen lehen aldiz Mozorro koadrilarekin. Ordurako bera baino 20 urte zaharragoa zen osaba ere ibilia zen.

Saturren esanetan goizeko zortzietan abiatzen ziren, eta hamai-ketakoa Benta Berrin egin ondoren, hirurak aldera jaisten ziren Ugaldetxora baz-





Mozorro eguna Ereñotzun. 1958. Goien ezkerretik hasita: J.M. Oyarzabal, J.M. Ibarburu, J. Ibarburu, T. Solano, K. Agirre, J. Agirre, J.M. Iriberri, S. Agirre, T. Urrestarazu, J.L. Biurrarena, Juan (Urmendikoa), J. Eizeaga.

kaltzera. Ibilbidean honako baserri eta etxe hauetatik pasatzen ziren: Ugaldetxo, Olazar, Bezkita Zelatxo, Urruzune, Leitzene, Urmendi, Igerola goikoa eta behekoa, Pagoaga, Naparralde, Benta Berri, Telleri, Askatsu, Abaino, Argorin, Aparrain, Pikoetxeberri, Ugaldetxo, Tximistane, Ubarreto eta Latxe.

Taldean auzoko 12-15 lagun ibiltzen ziren, eta honako jantzi hauek erabiltzen zituzten: galtza txuriak, apreta txuriak zinta gorriekin, alkandora txuria, gerriko gorria, emakumezkoen painueloak lepoan jartzeko eta txapela gorriak borlekin.

Ibilbidean zehar Saturrek kalejirak jotzen zituen taldea girotzeko. Baserrietara hurbiltzerakoan korneta jotzen zen etxeok beraien etorreraz ohartzeko. Koadrila iris-tean etxeok zain zeuden, eta elkar agurtu ondoren tragoren bat eskaintzen zieten. Egardia asetu ondoren, dantzan aritzen ziren. Saturrek sueltoko piezak jotzen zituen, eta taldeko bi edo lau lagunak dantzari ekiten zioten. Dantzan aritzen zirenen artean Pepito Legarreta gogoan zuen Saturrek, hura oso dantzazalea baitzen.

Eskainitako jai giroaren ordainez, etxeok zenbait genero ematen zieten. Jasotakoari puska deitzen zioten, eta beste hainbat gauzaren artean, arrautzak, txis-

torra, urdaia eta batzuetan dirua ere izaten ziren. Emandakoa saskian sartu eta eskerrak eman ondoren beste baserri batera abiatzen ziren.

Ibilbide guztia egin ondoren, askotan hirurak izaten ziren, Ugaldetxon bazkaltzen zuten. Bildutako puska egun berean prestatu eta jan egiten zuten. Bazkaldu eta gero, Ugaldetxon bertan, erromeria egiten zen. Neskak eta auzoko jendea inguratu eta dantzan aritzen ziren. Pasodobleak, baltseak eta sueltoko piezak jotzen zituen Saturrek, eta baita giro ederra sortu ere. Hamarretarako jendea erretiratu egiten zen, eta orduan koadrilakoak afaltzen hasten ziren. Afalostean, festa jarraitu egiten zuen. Mutil koadrila kantuan eta sueltan dantzan aritzen ziren errenditu arte.

Saturrek 1961. urtean, 28 urte zituela, utzi zion ateratzeari, eta geroztik festa hau ez zen gehiago egin.

Garai horretan inauterietako festa hau galdu bazen ere, urte luzez Benta Berrin edo Ugaldetxon jaiero erromeriarekin jarraitu zuten. Erromeri hauetan beste zenbaiten artean Satur aritzen zen.

Gaur egun ohitura haien arrastoek, Santa Agedako eta Olentzerotako eske jardunetan iraun dute.

ARGAZKI BILDUMA



Disfraz de carnaval. Año 1936.



Inauterietan mozorrotuta.
Erdian Domingo Mujica "Axala".



Inudeen taldea. 1902. urtea.

1919. urteko danborradan ibiltako taldea. Ezkiaga pasealekua.




Emakumeak inauterietan. 1912.



Kalderero konpartsaren emakumeak plazan. 1932. urtea.

Sokamuturra Plazan: 1987. urtean.



Carnavales en Etxeberri. Año 1989





Comparsa de Jardineros. Año 1981.

Xalaparta elkartean. 1983. urtea.





COMPARSA

de zapateros (A. Ezponda, Kintxo Urio)

En el año 1979, en plena ebullición social y política, los carnavales empezaron a resurgir de los oscuros tiempos del franquismo, como queriendo recuperar la alegría y el desmadre carnavalesco a toda prisa.

En aquella época, a algunos se nos ocurrió que estaría bien recuperar alguna de las comparsas que antes de la guerra tenían su gracia y protagonismo. Para ello recurrimos a Juanito Otamendi "Emeri", que como siempre y con mucho gusto, desempolvó el archivo de su memoria y nos sirvió en bandeja las andanzas de la comparsa de zapateros en la que él y otros hernaniarras de su estilo se divertieron de lo lindo.

Se recuperaron las canciones, las vestimentas y los utensilios que llevaban y, tras unos ensayos en los locales de las escuelas de Atzietas, nos lanzamos el domingo de carnaval del año 1980 a rememorar y disfrutar, pues de eso se trataba. Salimos por la mañana, después de recoger en Adarra un cubo de chocolate para que posteriormente el amigo Patxi Loreak se encargase de poner "betún" a todo el mundo en los zapatos. Íbamos vestidos con delantales de cuero que nos prestaron en Orbeago. Llevábamos, además, las

cajas, taburetes, yunques y todo tipo de utensilios que habíamos estado preparando en Transpazar. Nos acompañó la banda de txistularis y cantamos la canción de Don Crispín y la de Zapatariena.

El grupo estaba formado por unas 15 personas, que eran en su mayoría parejas de matrimonios o personas que mantenían amistad de cuadrilla.

Sus componentes eran: Satur Idarreta, Angel Tellería, Marian Agudo, Antonio Castillejo, Marian Platero, Kintxo Urío, Mari Carmen, Patxi Loreak "Monti", Carlos Hernandorena, Maritxu Platero, Laura Gordínez, Luis Aguirregabiria, Agustín Ezponda y Maribel Pérez.

Después del desfile nos fuimos a comer al bar Egaña, donde coincidimos con la comparsa de mejicanos. Por la tarde dimos todavía unas vueltas, pero ya sin txistularis.

1984

ARNASA-KONDARRAK KOADRILAK

(Arnasa-kondarrak)

Gure koadrilak, beste askok bezela, inauterietako ekitaldi desberdinetan parte hartu ohi du. Hasierako urte haietan gauez ospatzen zen festan murgiltzea eta mozorrotzea genuen gogoko. 1984. urtean, Kondarrak koadrilak lehen aldiz igandean ospatzen zen konpartsen desfilean parte hartu zuen. Urte horretan, Harri Burni euskara taldeak antolatuta, "euskararen tren" irudikatu zen. Erreibindikazio kutsua eman nahirik, tren baten barruan egungo gizarteko pertsonaia desberdinak zihoazen: langileak, gazteak, apaizak, umeak, etab. Gure koadrilan euskararekiko genuen konpromisoak bultzatu gintuen parte hartzera.



Geroztik, Arnasa koadrilarekin bat egin ondoren, inauterietako larunbat gaueko afariak sagardotegian ohikoak bihurtu ziren. Koadrila handia osatzen genuen eta denak mozorrotuta ibiltzen ginen. Hortik konpartsa ateratzeko ideia sortu zen eta 1989. urteko inauterietako desfilean parte hartzera animatu ginen.

Ijituen gaia interpretatzekotan ginen, baina urte horretan guk jakin gabe Patxi Lorea eta bere koadrilak ideia berdina izan zuten. Ateratzeko prest ginela erabaki behar izan genuen, eta behin animatuz gero, etxera joateko gogorik ez. Orduan, kaleko eskale edo "vagabundo" bezela aterako ginela erabaki genuen.

Su egiteko bidai bat hartu eta supermerkatuetan erosketak egiteko erabiltzen diren karro horietako batean musika eta beste traste batzuk sartu genituen. Arropak aldatu eta ziztu bizian ateratzeko prest ginen. Dena inprobisatu behar izan genuen, baina primeran atera zen. Ke arteko giro berezi hartan, txistorra usaina, kankak eta umorea batik bat sumatzen zen. Bezperako parrandak eragindako desmasiak disimulatzeko balio izan zigun, eta aldi

berean, lurtean kartoiaren artean egindako lo kuluskak, bati baino gehiagori primeran etorri zitzaizkion. Azkenean, kale buelta izan behar zuena egun guztiko festa bihurtu zen.

Hurrengo urtean, garai bateko lanbide zaharrak irudikatu genituen. Aspaldi gure herrietan kalez kale ibilitako pertsonaiak ziren: zorroztailea, aterki konpontzailea, sardin-ezti-baratxuri-izozki-barkillogoxoki saltzaileak, argazkilariak, zapata garbitzailea, esne saltzailea, errementaria, etab. Bakoitzak bere tresneria zeraman, eta, zer eskaini franko zegoenez, jendearen arreta erakarri genuen.

1991. urtean, Portalez kanpoko eskola irudikatzen zuen karroza prestatu genuen. Maisu-maistrak gelako giroan murgilduta eta ume koadrila jolasean aritu ginen. Orduko sinboloak eta aulki zaharrak erabili genituen eta irudipena askatuz garai bateko eskoletako giroa kaleratzen saiatu ginen.

Konpartsa ateratzekoak sortzen zituen eragozpenei aurre egitea eta bezperan parrandan ibiltzea bate-raezinak zirela konturatu ginenean, gehiago parte ez hartzea erabaki genuen.

INAUTERIKO SOINUAK

Urteen poderioz musika jotzeko eta dibertitzeko erak aldatu badira ere, Hernaniko inauterietan txistuaren protagonismoa nabaria izan da historian zehar. Jai hauen aipamen zaharrenek danbolina eta danborra karnabalak alaitzen ibiltzen zirela diote. Urteak joan urteak etorri, beste soinu tresnek protagonismo gehiago hartzen joan baziren ere, gure txistuak bere esparru propioa mantentzen jakin izan zuen.

Aurreko mendean eta gerra bitarteko inauterietan, hain arrakastatsuak izan ziren dantzaldietan, bandarekin txandakatuz jotzen zuten txistulariek. Beste hainbeste gertatu zen ekitaldietan ere, txistularien presentzia ezinbesteko osagaia bihurtu baitzen. Halaber, azeri dantza, goizeko dianak, euskal dantzak eta oro har euskal ohituren inguruko edozein ekitaldi girotzen zuten.

Garai horretako inauteri festak ezagutu zituztenek, beste ekitaldien artean goizeko dianaren xarma aipatzen zuten. Goizeko 6etan egiten zen, eta jai egunaren hasiera adierazten zuen. Jose Ansorena txistulari ospetsuak inauterietako doinuak erabiltzen zituztela zioen. Bereziiki asteartean "Asteartitas" deitzen zioten boleroa jotzen zuten.

Azken garaiko Inauterietan ere, ospatzen diren zenbait ekitalditan txistularien parte-hartzea ohikoa bihurtu da. Patxi Apezetxea da egungo txistulari-bandaren zuzendaria, eta bere esanetan, urte hauetan guztietan, buruhandi eta erraldoiekin batera, azeri dantzan eta igandeko dianan atera izan dira batik bat. Gogoan du baita ere urte batean zapatagileen konpartsarekin ibili zirela.

Hasierako urteetan, igandean, inauterietako doinuekin kontzertua antolatzen zutela dio Patxik. Eguerdian egiten zuten, eta ordu horretan ere konpartsak ateratzen ziren. Hango zalaparta eta soinuarekin ez zen kontzertuko girorik sortzen, eta saioa egiteari utzi zioten. Igandeko dianan inauterietako doinuak jotzen dituztela dio Patxik. Tolosako diana-doinua jotzen dute kalejiran eta, gelditzen direnean, Plaza Berrin eta Plazan, Idiarena motako beste bi doinu.

1988. urtean, mozorrotzea erabaki zuten. Urte horretan, Lantzeko txantxoaz jantzi ziren. Geroztik urtero mozorrotu dira, bai larunbatean eta baita igandeko dianan ere. Hilabete lehenago bilera egiten dute, eta zertaz atera erabakitzen dute. Norberak prestatzen du bere jantzia. Denetatik mozorrotu dira: bake-roz, mexikarrez, tirolesez, medikuz, pirataz, pailazoz, gansterrez, etab. Azkeneko aldian aukera libre utzi zuten, eta bakoitzak pertsonaia desberdina hautatu zuten.

Bestalde, badira urte batzuk Herniko musika eskolan ibiltzen diren ikasleek inauterietan parte hartzen dutela. Txistulariak, trikitilariak, dulzaineroak, etab. ekitaldi desberdinetan aritzen dira.

Azkenik, inauterietako soinuen errepaso honetan, Hernaniko musika banda aipatu beharko genuke. Garai batean sekulako protagonismoa izan bazuen ere, egungo inauterietan ez du kasik parte hartzen.

Hasierako urteetan, karnabaletako igandean, kontzertua eskaintzen zuen. Txistulariei gertatu zitzaizen bezala, eguna aldatu behar izan zuten. "Domingo de piñata" izenarekin ezaguna den, inauteriak pasa eta hurrengo igandean kontzertua antolatzen hasi ziren, eta horrela jarraitu dute gaur arte. Kontzertu horretan inauterietako doinuak jotzen dituzte, besteak beste.





Desde que se recuperaron los carnavales, esta cuadrilla de hernaniarras ha participado de una forma u otra en estas fiestas. Los primeros años solían disfrazarse el sábado por la noche y acudir a la sociedad Xalaparta, donde había un ambiente muy bueno. Posteriormente empezaron a ir a cenar a una sidrería, pero eso sí, disfrazados. Según comenta Manix, el animador de la cuadrilla, los chicos se preparaban por un lado y las chicas por otro, y al juntarse solían echar unas risas. En la sidrería se juntaban casi siempre las mismas cuadrillas, y solían pasarlo muy bien cantando, bailando y lo que hiciera falta.

MUZKI KOADRILA

1987

Algunos de la cuadrilla solían disfrazarse y andar por la calle montando el numerito. Recuerda Manix que un año se disfrazó del personaje de la película de E.T. y los niños se quedaban alucinados. Los siguientes días tuvo que ir a algunas ikastolas disfrazado, ya que le pidieron que explicara quién era y por qué hablaba en euskera.

En el año 1987 la cuadrilla empezó a participar como comparsa. Aquel año comenta Manix que era actualidad el tema de los mineros de Asturias. Salieron unos 50, algunos interpretando a los mineros y mineras y otros como parte de un grupo de rescate. En la cena del sábado algunos fueron disfrazados del mismo tema para ir introduciéndose en los personajes. El domingo en el desfile por la calle iban con todo tipo de utensilios, herramientas e incluso una vagoneta. Recuerda que llevaban incluso grabado el ruido del compresor para darle más autenticidad a su interpretación. Durante el recorrido solían hacer simulacros de accidentes de trabajo, y hacían intervenir al grupo de rescate, que iba con sirena y todo lo necesario. Llevaban asimismo un equipo de música, y solían poner una selección de canciones típicas del tema, "Soy minero" y otras de ese estilo.


Al año siguiente decidieron sacar una comparsa ambientada en África. Representaba un safari donde

había cazadores, nativos y todo tipo de animales. Un mes antes se juntaban unos cuantos en un local de la calle Urumea e iban preparando todo el material. Los trajes se los preparaban cada uno el suyo. Intentaban que fueran disfraces sin mucha complicación, indica Manix, que recuerda asimismo que prepararon unas escopetas que eran simulación de las reales pero quedaron tan bien que todavía se utilizan para los San Marciales. En el desfile imitaban la persecución y captura de animales que posteriormente introducían en una jaula, pero todo ello en tono jocoso.

Después del desfile solían ir todos a comer a la sociedad Xalaparta. La comida la pagaban con lo que quedaba de la subvención, y el resto a escote. Ese año recuerda que salieron solos en el desfile y recibieron la subvención destinada a comparsas. Después incluso les llamaron para que devolvieran el dinero, ya que solo les correspondía la parte de su comparsa.

Ese año fue el último en el que participaron como comparsa. Se quedaron sin local y decidieron dejar de salir. No obstante, algunos de la cuadrilla siguen disfrazándose por su cuenta y acudiendo a la sidrería, donde hacen gala del humor que siempre les ha caracterizado.





Esta iniciativa surgió en el año 1987 como idea festiva y con el propósito de animar y disfrutar de los carnavales hernaniarras, pues se veía que, exceptuando el desfile de comparsas del domingo, que solía ser bastante limitado en participación, no había posibilidad de que los jóvenes que quisieran se integraran en un proyecto para vivir el carnaval a nivel popular.

ACAMPADA INDIA

(Mikel Karmona)





Aprovechando los vínculos creados entre muchas cuadrillas hernaniarras durante la organización y participación en eventos como las Olimpiadas Populares y el Akelarre, nos juntamos unos cuantos y pusimos en marcha el proyecto, que se concretaba en una concentración-acampada de diversas tribus indias americanas contra el V Centenario. Se celebró de jueves a martes de carnaval en la campa de la Milagrosa.

Se inscribieron más de 20 "tribus-cuadrillas", con nombres de guerra como "Tximikis", "Txillones", "Garra-patahoses", etc., y cada una de ellas construyó un "tipi" o tienda, con sus decoraciones diferentes. Lo mejor fue la ilusión generada por la gente que trabajó durante días, tanto en el montaje del campamento como en la construcción de una gran canoa india y una carabela para la parodia de la "conquista" española.

El resultado fue una gran atracción estética y festiva durante los 5 días en Hernani, llegando a sus mejores momentos el sábado por la noche y el domingo por la mañana.

El sábado se montaron actividades de todo tipo (concursos-peleas indias, boda india, música, hogueras, ponys, etc.) que duraron hasta la madrugada. El domin-

go era el día del desfile oficial de comparsas, y aquí ocurrió la anécdota quizá menos divertida, puesto que la cuadrilla que representaba a los "españoles-conquistadores", y que debía ir a bordo de la Carabela en el desfile, decidió sacar antes de tiempo el barco y terminó empotrándose contra un comercio del casco viejo. A pesar de ello, desfílamos con el mejor de los ambientes (incluida la Carabela).

Mención aparte merece la gran canoa construida por Xabier Gastón, en la que llegó a haber más de 30 guerreros y guerreras, y que recorrió Hernani y sus barrios (también Astigarraga y algunas zonas rurales) con música, cánticos y mucho cachondeo.

El lunes seguía el montaje, pero a causa del diluvio bajó bastante el ambiente, pero todavía quedaron ganas para montar una excursión de más de 80 guerreros y guerreras a Tolosa, causando allí también pánico y estupor entre los tolosarras (no llegó la sangre al río).

Hubo mucha participación, algunos estuvieron un día, otros por momentos, pero también hubo mucha gente que llegó a pasar 6 días viviendo en el campamento.

Buen ambiente + ilusión = Bonita historia



AZERI DANTZA

INAUTERIETAN

Hernaniko azeri dantzaz hitz egitea herri honetako ohitura eta tradizioz zaharrene-tako bati buruz aritzea da.

XVIII. mendetik ezaguna den azeri dantzaren jatorria zehatz-mehatz jakitea zaila gertatzen da. Hain urruti geratzen zaizkigun urte haietako ekitaldi honen aipamenak soilik idatzirik jaso ditugu. Aipamen horien arabera, orduko San Joan jaietan ospatzen zen, eta beste era batera egiten zen. Nolanahi ere, egungo azeri dantza edo maskuri dantza, 1887. urteaz geroztik gutxienez ezaguna da gure herrian. Belaunaldiz belaunaldi transmititutako ohitura honen jatorria orduko inauteri festetan kokatzen da.

Garai hartan, eta azkeneko gerra zibila arte, inauteriko astelehen eta astearte goizetan ospatu ohi zen. 1936ko gerraren ondoren inauteriak debekatu zirenez, San Joanetan egitea erabaki zen modu berean. Azkeneko hamarkadetan horrela mantendu da, baina inauteriak berreskuratu zirenetik bi festa garaietan antolatzen da.

Urteen poderioz ekitaldiaren bilakaerak ez ditu aldaketa sakonik sumatu. Funtsean, alde batetik soka bati helduta ateratzen den maskuridun koadrila eta bestetik kalean ibiltzen den jendearen arteko konplizitatean datza joko honen ezaugarria. Maskuridunak zenbait unetan jendea sokarekin inguratzen saiatuko dira, eta harrapatutakoak joka hasiko dira maskuriak erabiliz.

Ume jokoa dirudien entretenimendu honetan, inauteri garaian agertzen diren jokabide batzuk adierazten dira. Festa hauetan, ohikoa da jendea zirikatzea, atzetik korrika ibiltzea, bortizkeria puntu bat erabiltzea, makila, maskuri edota objektu desberdinekin jotzea, hots bereziak eragitea, etab. Giro honetan uler daiteke joko honen arrakasta.

Egun bizi diren zaharrenen arabera, garai batean inauterietan ospatzen zen azeri dantzaren ezaugarrietariko bat jokoaren naturaltasuna zen. Haien iritziz, oso herrikoia zen, eta ez zuen inongo antolaketa eta jendearen protagonismo izaten. Gaur egun, aldiz, joko xume hau hernaniarron ondare kulturalaren ikurra bihurtu dugu. San Joanetan arrakastaz ospatzen da eta kalea jendez gainezka egoten da. Inauterietan, ordea, beste giro bat sumatzen da, ez du hainbeste jende parte hartzen, baina ekitaldiak nortasun propioa lortu du.

Gaurko azeri dantzan, osagai desberdinak aurki ditzakegu. Alde batetik, buruan azeria duen pertsonaia berria agertzen da, eta bestetik maskuridunek jendearen atzetik ibiltzeaz gain zenbait unetan dantza moduko pauso edo ibilerak egiten dituzte. Bestalde, orain dela gutxi arte mutilak bakarrik aritzen baziren ere, ohikoa bihurtu da neskek soka parte hartzea.



Azeri dantza Sanjuanetan. 1972.



Hasierako dantza inauterietan.

Inauterietan azeri dantza larunbat goizean ospatu ohi da. Halere, aspalditik astelehenean gaztetxoak ateratzen dira. Umeentzat antolatzen da batik bat, eta Langile ikastolako ikasleek parte hartzen dute sokan.

Inauteriak berreskuratu zirela 25 urte betetzen diren honetan, azeri dantzan parte hartzen duen protagonista baten iritzia hauxe da.

Juan Karlos Lujanbio, "Txato", orain dela 25 urte hasi zen inauterietako azeri dantzan parte hartzen.

Lehenengo bi urteetan Urumea atletismo taldeak antolatu zuela dio, eta berak, taldekoekin entrenatzen zenez, sokan ateratzeko aukera izan zuen. Urte horietan ibilitakoak taldeko korrikalariak ziren, eta jantziak ere taldeak utzitakoak.



Txatoren esanetan, hurrengo urteetan Ekintza eta Harri Burniko jendea ibili zen antolatzen. Urte horietan ibilitako jendearekin taldetxo bat sortu zela dio, eta orain arte mantendu da.

Gustukoa du azeri dantzan parte hartzea, eta urteak joan urteak etorri, hasieran bezala gogotsu aritzen

bada ere, prestaketa fisikoa beharrezkoa dela dio Txatok. Urte hauetan guztietan, sokan atera den jende artean giro ona izan dela aipatzen du. Batzuk erretiratzeko joan ahala beste gazte batzuk azaldu dira. Sokan ateraren artean, bereziki Bernardo Astiazaran "Indio" gogoan du Txatok. "Gurekin ateratzen zen beti eta bere heriotzak hunkitu gintuen", dio.

Txatoren iritziz, inauterietako azeri dantzak, San Joanetan ateratzen denarekin alderatuta, beste hainbat osagai ditu. Beste hainbaten artean, dantza arloa

gehiago jorratzen da, eta beti, atera baino lehen, pausua eta ibilera entsaiatzen dute. Hasieran egiten duten dantza inauterietan bakarrik egiten dela dio. Dantza hau, Aita Donostia ospetsuak, Hernaniko Pablo Zubillagak esanda, garai batean egiten omen zela zioen.

Inauteri kutsuko beste osagaiak ere berreskuratzen saiatzen direla aipatzen du Txatok. azeriaren pertsonaiak, adibidez, sokakoak ezkutuan daudenean jendea distraitzeko du helburu. Horretarako jendea zirikatzen aritzen da, irina, arrautzak, ura edo beste gauzaren bat botaz.

Txatoren esanetan, ezkutatzeko txokoak bilatzen ere saiatzen dira. Bezperatik lokal, etxe, denda edo tabernetako jendeari abisua ematen diote. Jendea oso ondo portatzen da beraiekin.

Urte batean gauza bitxia gertatu zen. Plaza Berritik txoko batera zihoazela, hara non eta Cuevas farmazira zihoan botika banatzeko kamioia agertu zen. Denak kamioira igo eta gidariari aurrera egiteko eskatu zioten. Kamioia farmaziko izkinera iristean, jendeak gutxien espero zuenean, denak jaitsi eta maskuriak dantzan jarri zituzten.

Aipatzekoa du ere, atera aurretik egin beharreko lanak, maskuriak ondo prestatzeak lan asko ematen baitu. Hasierako urteetan maskuriak beraiek puzten zituzten; orain, aldiz, puztuta erosten dituzte. Maskuriekin asmatzea ez da erraza, ia 200 maskuri ekartzen dituzte, eta askotan ez dute irauten.

Saioa bukatu ondoren, txistulariak eta sokan ibilitako jendea hamaiketako hartzera joaten direla dio Txatok. Botatako izerdiak merezi izaten du, gero mahai inguruan sortzen den giro ona dastatzeko.



ASMAZAK

KOADRILA

(Pili Lujanbio)

La cuadrilla de chicas Asmazak empezó a participar en los carnavales en el año 1979. Salimos de noche vestidas de negros y negras. Recuerdo que había gran ambiente, la gente tenía mucha ilusión. Se disfrazó mucha gente y Los Tilos estaban a tope de gente bailando.

En el año 1980 pensamos que podíamos sacar una comparsa y, con mucha ilusión, nos vestimos de mejicanos y mejicanas. Como no teníamos plataforma, salimos con un magnetófono bastante potente. Cuando nos parábamos a bailar en la plaza o en Plaza Berri, a la cuadrilla que venía detrás de nosotros, que llevaba un coche con altavoces, le dábamos la cinta, y así bailábamos.

En el año 1981, salimos de jardineros (lorazainen konpartsa). Nos enteramos de que en Donosti había salido dicha comparsa y nos pusimos en contacto con gente de allí. Como nosotras solas no éramos muchas, hablamos con gente que anteriormente conocíamos porque había participado en el año 78 en la comparsa de "inudes y artzaia". La comparsa estaba formada por un grupo de jardineros que bailaban una coreografía preparada para ese día. Por delante de la comparsa iban varios dantzaris del grupo Ekintza, que representaban a los siete herrialdes, y detrás una carroza que lleva-

ba un jardín. En la carroza iban, entre otros personajes, un inude, un mikelete, niños jugando en unos columpios, y una señora. La plataforma era tirada por dos hermosos bueyes que iban también ataviados.

En el año 1982, nos enteramos de que había un baile de sastres, e intentamos bailarlo nosotras. Para que participara más gente, ese año dividimos la cuadrilla: unas nos fuimos con los sastres y otras con otra comparsa de deshollinadores y Mary Poppins. Ese mismo año estaban de moda los pitufos, y a todos los peques que conocíamos les preparamos para que salieran. Iban con el personaje del padre Abraham y subidos a un carro que nos prestó el gitano Etxeberría. Ese año llovió a cántaros.

A partir de ahí dejamos de participar como cuadrilla, pero algunos años después volvimos a salir en otras comparsas.

CUATREROS DE ETXEBERRI



Este grupo de amigos son fijos en el carnaval hernaniarra. Durante bastantes años, Patxi Lorea "Monti", Pako Muriana "Zana", Alfonso Jabat "Apoto" y su hermana Eurne protagonizaron diversas actuaciones callejeras al más puro estilo carnavalero. Con el paso del tiempo, algunos dejaron de salir, pero fueron sustituidos por otros. Los que se han mantenido son "Monti" y "Zana", que, junto a Marcos Estéfano y Cipri, son los protagonistas actuales de este cuarteto.

Según nos cuenta Monti, a ellos siempre les ha gustado disfrazarse y aprovechan cualquier fiesta para salir disfrazados. Recuerda que su primera hija nació en carnavales, era el primer año que se hacían y en el pueblo había un ambiente extraordinario. Como no iba a ser menos, decidió participar y pensó que el mejor disfraz era el de padre, por aquello de ir haciéndose a la idea.

En el año 1980 participaron en la comparsa de zapateros que salió ese año. En aquella época solían disfrazarse los sábados por la noche, y cenaban en la sociedad Xalaparta. Un año Apoto se vistió de mosquetero y ganó un premio en un concurso que se realizó en el Yausika.

Al año siguiente, el domingo de carnaval salieron en una carroza que representaba cuentos infantiles.

Posteriormente también empezaron a participar el viernes por la noche. Solían ir a una sidrería, y también se disfrazaban.

En el año 1989 empezó a salir el grupo de cuatro que tanto éxito protagonizó. Ese año salieron el domingo representando a los gitanos callejeros, con cabra incluida. Según indica Monti, dieron la nota. No faltaba ningún detalle: música, tambor, escaleras y la cabra que tantos quebraderos de cabeza les dio. Tuvieron que comprarla y les costó 11.000 pesetas que pagaron de su

bolsillo, ya que no recibieron subvención. La víspera dejaron la cabra atada en una campa y se les escapó. La persecución por todo el barrio fue también de película. Para colmo, después de los carnavales, les denunciaron en una emisora de radio por maltrato de animales. Menos mal que a cuenta de la dichosa cabra pudieron celebrar una exquisita comida después de los carnavales.

Al año siguiente confeccionaron unos muñecos de trapo y se los pegaron al cuerpo. Salieron bailando la lambada, que por aquel entonces estaba de moda. El disfraz





estaba muy logrado, según indica Monti. Los trajes siempre los preparaban las mujeres.

En el año 1990 salieron de madrileños, bailando "chotis". Llevaban un organillo y un mono. Los años siguientes salieron de bebés y repitieron de gitanos. Solían representar cosas de actualidad. Aquel año recuerda Monti que habían expulsado a unos gitanos de Lasarte. Ese año, además de una cabra, llevaron también un burro. Se pusieron a pedir, y la gente les daba dinero y otras cosas.

Otro año salieron de toreros. Los trajes los alquilaron, y prepararon un toro de ruedas. En el año 1995 interpretaron a los niños de la lotería. Eran los niños de Don Paciano de la universidad de Viteri. La Navidad anterior había tocado la lotería en Hernani. Ese año llovió mucho y deslució un poco la fiesta, pero ellos no pararon de cantar.

En el año 1996 se vistieron con ropa de aeróbic. Ese año ficharon a última hora a la hija de Monti para que hiciera de monitora. Al año siguiente repitieron como bailarinas de ballet. Ese año no salió Edurne, y le sustituyó un sobrino de Pako. Bailaron bailes clásicos del tipo de la danza de los cisnes y cosas parecidas.

El minitranvía de Hernani fue su siguiente montaje. Prepararon un carro con un motor antiguo que tuvieron

que asegurar. Se disfrazaron de personajes de la época del tranvía: maquinista, percheró y baserritarra.

Con el mismo carro motorizado salieron también representando las caravanas del Oeste. Interpretaron personajes de la serie televisiva "La casa de la pradera".

Le cogieron gusto al invento motorizado y lo utilizaron al año siguiente para representar la Feria de Sevilla. Ese año dejó de participar Apoto y salieron Cipri y Marcos. Los trajes eran prestados y la música que sonaba en su carro dejó de funcionar. A pesar del contratiempo, siguieron improvisando.

En el año 2001 salieron de avestruces. Al año siguiente la comisión de fiestas les hizo un pequeño homenaje. Ese año se disfrazaron de gimnastas, recordando las medallas que se ganaron en el pueblo en la modalidad de gimnasia rítmica. En el homenaje se disfrazaron de boxeadores y montaron un numerito en la plaza. El año pasado salieron de drag queens.

Según comenta Monti todos estos años se lo han pasado muy bien, y esperan tener cuerda para rato. A ellos no les gusta participar en el desfile, lo suyo es ir a su aire improvisando. La gente se ha portado muy bien con ellos, en los bares siempre les sacan bebida y son muy atentos.



Erraldoi eta buruhandi konpartsak, gure folkloreari betidanik lotua egon den jai elementua izan da. Hernaniren kasuan, San Joan jaiei hasiera emateko egiten den ekitaldian parte hartu ohi dute. Konpartsa honen parte-hartzea 1948. urteaz geroztik gutxienez ezaguna da. Aldi berean, inauteriak berreskuratu zirenetik, jai hauetan ere parte hartzen dute.

ERRALDOI ETA BURUHANDIAK GURE FESTETAN

(J. Segura - Krikitina taldea)

1948

Aspaldiko ohitura izan arren, Hernanin ikuskizun honek interes gutxi piztu izan du. Betidanik umeen gozamina eragin badu ere, beste ekitaldiek izan duten protagonismorik ez du lortu izan.

Hasierako urteetan kartoiez egindako irudiak ziren. Ohikoak ziren erraldoien irudiak erregeen pertsonaiak izatea. Buruhandiak, aldiz, piratak, beltzak, pailazoak eta gehienetan beldurra eragiten zuten pertsonaiak izaten ziren.

Urte luzez konpartsa ateratzea udaletxeko arduradunen eskuetan egon zen. Konpartsa San Joan bezperan txupinazoaren ondoren ateratzen zen. Konpartsarekin batera txistulariak aritzen ziren, eta ibilbidea erdiguneko kaleetan barrena egiten zuten, oraingo modura.

Aspaldiko ohitura izan da, baita ere, txistulariek San Joanetako lehen kalejira honetan Triku-Triku doinuak jotzea.

Urteak joan urteak etorri, erabilpenaren ondorioz irudiak egoera tamalgarrian aurkitzen ziren.

80. hamarkadaren hasieran, Satur Idarreta hernaniarrak pertsonaia berriak prestatu zituen. Erraldoiek ilargia eta eguzkia irudikatzen zuten. Urte batzuk geroago, Ikaro kolektiboko kideei beste irudi batzuk egitea enkargatu zitzaion. Irudiak egiteko material berriak erabili zituzten, baina oso astunak gertatu ziren. Ordurako auzo gehienetako festetan erabiltzen zituzten, eta handik gutxira berriro aldatu beharrean aurkitu ziren.

Jai batzordeak, azaldutako egoera ikusirik, konpartsa berria egitea eskatu zuen. Eskaera honi erantzunez, udaletxeko arduradunek 1998. urtean, Kriskitina taldearekin harremanetan jarri ondoren, konpartsa ikusgarria prestatu zuten. Konpartsaren ardura talde honen eskuetan utzi zuten. Talde honetako partaide batek, Luis Telleriak hain zuzen, pertsonaiak dantzatzeko koreografia prestatu zuen. Erraldoi eta buruhandien dantza hau "Idiarena" doinuarekin dantzatzen da. Doinu hau azeri dantzan jotzen den melodietako bat da. Aipagarria da Euskal Herrian buruhandi eta erraldoiak batera dantzan ibiltzen diren beste konpartsarik ez dagoela.

Konpartsaren pertsonaiak aukeratzekoan, Hernaniko historiarekin lotura bilatu nahi izan zen. Konpartsa honela osatzen da: erraldoiek aiton-amonak irudikatzen dituzte; buruhandiek, aldiz, azeria, oilarra, arlekina, karlista, pirata eta sorgina.

Inauterietako azken 25 urte hauetan guztietan erraldoi eta buruhandien konpartsa present izan da. Egun, inauterietako larunbat goizean eta astelehen arratsaldean ateratzen da. Konpartsarekin batera txistulariak ibili ohi dira, baina azken urteotan astelehenean gaita eta dultzaina doinuak ere entzun dira.

Konpartsa honen bidez, herriko jaiek indar eta alaitasun gehiago hartzea espero dugu, umeentzat ezezik (izan ere, beraiei heltzen zaie ikuskizun hau zuzen zuzenean), beste guztientzat ere bai.



TXORIMALOAREN BIZIPENAK

(Inaxio Sanz)



Hernaniko inauterietan beti nagusitu izan da giro ederra eta umore ona. Horrek bultzatuta, ahal izan dudan heinean kalera jo dut honetaz gozatzeraz. Inauteriekin izan dudan lotura 80ko hamarkadan izan da batez ere, nahiz eta hauen iragarle diren "kalderero"-en konpartsan oraindik ere urtero parte hartzen dudan.

Nahiz eta urte askotan parte hartu, urte guztiak modu ezberdinean gozatzeko aukera izan dut. Batzuetan talde mailan eta beste zenbaitetan nire kontu ateraz, guztietan ere umore ona eta ondo pasatzeko aukera baztertu gabe.

Honela, nire parte hartzea lau maila ezberdinetan eman dela esango nuke.

—Batetik, konpartsa mailan. Kasu honetan nire parte hartzea nahiko urria suertatu da. 1980an, Gau Eskolako partaide ginela, "Euskararen Liburu Zuriaren" ikasleen konpartsa atera genuen.

1989an, gure koadrilak (Beti Alperrak), "Walt Disney" konpartsa atera zuenean, sendi osoa irten ginen. Nire emazte eta semeek 1995 arte konpartsa honetan urtero parte hartu izan dute, algodoi biltzaile, sardinera, mexikar, tiroles eta bakero konpartsetan.

—Bestetik, koadrila txiki mailan ere parte hartu izan dut, eta kasu honetan konpartsa mailan baino gehiagotan irten naiz. 1981. urtean, Oiartzungo Intsisu antzerki taldeko partaide baten bidez, egun batzuk lehenago beren lokalera joan eta jantzi batzuk lortu ahal izan genituen. Inauteri bezperan Usurbil eta Hernaniko taldetxo batek jantzi horiekin une on batzuk igarotzeko aukera izan genuen.

